

Akizu Bidegain, Maialen: Kultur-politikak hogeita batgarren mendean. Kontzeptu eta proposamenak Euskal Herritik

Ikerketa honen helburua da euskal kulturgintza garatzeko baliagarriak izan daitezkeen gakoak identifikatzea kultur-eskubideen esparrutik. Horretarako, Euskal Herriko kultur-eskubideen argazki bat atera da elkarrizketa sakonen bidez eta bertan jasotako testigantzak marko teoriko zabalago batean kokatu dira proposamen, erronka eta zalantzak mahai-gaineratzeko. Euskal Herrian kultur-eskubideak garatzeko beharra eta aukera dagoela ondorioztatzen da.

Giltza-Hitzak: Kultur-eskubideak. Euskal kulturgintza. Gobernantza.

El objetivo de esta investigación es identificar las claves que pueden servir para el desarrollo de la cultura vasca desde el ámbito de los derechos culturales. Para ello, se ha realizado una fotografía de los derechos culturales de Euskal Herria a través de entrevistas en profundidad y los testimonios recogidos se han enmarcado en un marco teórico más amplio para plantear propuestas, retos y dudas. Como conclusión, se destaca la necesidad de desarrollar los derechos culturales en Euskal Herria y la oportunidad que ello significaría para dicho ámbito.

Palabras Clave: Derechos culturales. Euskal cultura. Gobernanza

L'objectif de cette étude est d'identifier les clés qui peuvent servir au développement de la culture basque dans le domaine des droits culturels. En l'espèce, une photographie des droits culturels d'Euskal Herria a été faite par le biais d'entretiens approfondis, et les témoignages recueillis s'inscrivent dans un cadre théorique plus vaste pour soulever des propositions, des défis et des doutes. En résumé, on y insiste sur la nécessité de développer les droits culturels en Euskal Herria et les possibilités que cela représente pour cette région.

Mots-clés : Droits culturels. Culture basque. Gouvernance.

Akizu Bidegain, Maialen: Kultur-politikak hogeita batgarren mendean. Kontzeptu eta proposamenak Euskal Herritik

Kultur-politikak hogeita batgarren mendean. Kontzeptu eta irakurketen azterketa orokor bat

(Cultural policies in the 21st century. Concepts and proposals from Euskal Herria)

Akizu Bidegain, Maialen

Euskal Herriko Unibertsitatea. AFIT Ikerketa taldea. Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultatea.
Tolosa Hiribidea, 70. 20018 – Donostia-San Sebastian
makizu10@gmail.com

Jasoa: 2023-03-23
Onartua: 2023-05-19

BIBLID [2952-4180 (2023), 68: 1]

1. Sarrera

Eskuartearen duzun artikulu hau ikerketa zabalago baten lagina da. Ikerketa horrek teoria feminista eta teoria politiko “orokorra” lotu nahi ditu, ikusita “mundu paraleloetan bizi direla maizegi, elkargune gutxiarekin, eta, egotekotan, emakumeen bizkar” (Esteban, 2017). Politikaren eta politikoaren arteko desberdintasunaren ulkerak izan daitezke bien arteko arrakala handiena. Politika bera sinbolo kondentsatu baten kategoriatzat hartu izan da (Turner, 1967) nozio nahasi eta polisemikotzat. Epistemologia feministak ordea, aspalditik dio politikaren ulkerak eta definizioak ez diola politikoa den orori erreferentzia egiten ulertuta, politika erabaki eta hautu batzuen ezarpen gisa. Pertsonala politikoa da leloak arrakasta izan du Mugimendu Feministan 60ko hamarkadako Ameriketako Estatu Batuetan sortu ziren autokontzientzia-taldeek formulatu zutenetik. Emakumeek euren sentimendu eta esperientziak konpartitzea zen talde hauen elementu nagusia eta Kate Milletek eman zaioten gerora leloaren sinadura. Aldarri honek arazo politikoaren birplanteamendua suposatzen zuen. Politika, instituzio zein eremu publikoarekin lotzen zen batik bat, eta Milletek egiturazko arazo pribatuak feminismoaren borroka-leku nagusi zirela azpimarratu zuen.

Milletek *politika* terminoak Adorno eta Horkheimerreren *Ilustrazioaren Dialektika* obrarekin lotura zuzena du eta garaiko Ezker Berri izan zen orduko feminista askoren elika-leku (Puleo, 1994). *Politika* ulertzeko aldaketa honek bide eta aukera berriak zabaldu zituen, nahiz eta gerora, kontraesan eta zailtasun batzuk ere ekarri; besteak beste, feminismoaren aldarrikapenak alderdi politikoek edo erakunde erreformistek asimilatu ez zituzaten tentsioak agertuko dira. María Ángeles Salles (2018) azpimarratzen du “egundoko zailtasuna dago(ela) ekintza instituzionalarekin sinergia positiboak sortzeko” (Salles, 2018:95). Sallesen ustez instituzionalitate publikoak dikotomiak “bere zainetan” daramatza, halako moldez non zerbitzari publikoari funtzionario deitzen baitzaio, hau da, printzipioz helburu, prozesu, emaitza, kolektibo... bati ez baizik eta funtzio bati zor zaion norbait. Gainera, eremu publikoa oso zatikatua dago eta banaketa zorrotz zein hierarkikoak ezartzen ditu tematika eta kompetentzien artean. Zaila da beraz, aktore, eremu, funtzio eta abar ezberdinak prozesu eta marko berean finkatzea.

Gainera, Mari Luz Estebanen *Feminismoa eta Politikaren eraldaketa* (2017) saiakerak Joyce Gelben “feminismo y acción colectiva” (1992) artikulua aipatzen da, eta bertan hiru testuinguru geografiko-historiko-politiko bereizten dira feminismoaz hitz egiteko. Britainiarra, iparramerikarra eta suediarra. Amerikako Estatu Batuetako feminismoan, funtsezkoak izan dira, besteak beste, presio talde deritzenak, lobbyak, zeintzuek gobernuan ere eragiteko ahalmen itzela erakutsi duten egunotaraino. Suediar feminismoaren ezaugarri nagusietako bat, aldiz, Estatu-feminismoa izatearena da, aukera berdintasuna lortze alderako neurri instituzionala aditu bezain eredu. Erresuma Batuko feminismoak, azkenik, askoz ere enfasi handiagoa jarri ohi du ideologia feminista zabaltzen, erakundeetatik aparteko mugimendu autonomo eta auto-antolatua lehenetsiz eta Estatuari gutxiago begiratuz. Estebanek ondorioztatzen duen moduan, gure iritziz ere Euskal Herriko feminismoa eredu britaniarrera hurreratzen da batik bat; tokian-tokiko auto-antolaketa indartzen saiatzen da, eta emakumeek eurek kudeatutako zerbitzuen sorrerara bideratua dago.

Mendearen aldaketarekin batera feminismoaren jarraipena eta aniztasuna ziurtatu dira, eta hazkunde nabarmena izan duela jardura feminista instituzionalak (Esteban, 2013), baina, halere, feminismoaren eta politika instituzionalaren artean tentsioak egon dira, hau eremu publikoarekin logikarekin lotu izan delako, eta gizonezkoen boterearen araberakoa bihurtu. Bat egiten da Martha Patricia Castañeda et al.-ek (2019) diotenarekin: akademia feminista egitea politika feminista egitea da, baina, instituzio politikoekin harremanetan jartzean tentsioa asko ditu paradigma feministak.

Premisa hauetatik kultur politikak aztertu eta definituko dira. Kultura politikoa dela edo politikoa izan daitekeela tesi honek abiapuntutzat duen premisa da. Beste era batera esanda, “kultura balio edo

ondasun publikoa dela uste da eta errealitatea ulertzeko, interpretatzeko eta eraldatzeko gaitasuna ematen digu, eta herritarrak askeago eta kritikoago izatera garamatza” (Kulturaren Euskal Behatokia, 2018:4). Baina, Walter Benjaminek (1963) aditzera eman moduan, gertakizun artistikoen izaera politikoa erabat aldatzen da merkantilizazioaren produkzio katean sartzean. Marilena De Souza Chaui filosofoak kulturak “asaldura politikoa” eragin behar duela aipatzen du, jakintza eta arteek mezuak produzitzen dituztela, eta, horiek baliatu behar direlak masak erakarri eta kontzientzian eragiteko (Chaui, 2013)

Ertz hauek kontuan hartuta, kulturagintzari politika publiko kulturaletatik egin nahi zaio ekarpena. Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) erreferentziak erabiliko dira batik bat, Euskal Herria deitzen diogun zazpi lurraldeko eremu politikora zabaltzeko aukera eta intentzioarekin. Euskal Herriko Kultura-politiketarako politikaren zentraltasuna onartzeak esan nahi du agendaren erdigunean ekitatea edo justizia soziala bezalako balioak jartzea. Kulturaren irakurketa apolitikoa saihestea, eta, bereziki, kulturaren publikoaren eta arruntaren arteko harremanen gogoeta egitea.

Ondorengo artikulua honetan kultur politika (publikoen) gaia jorratuko da eta horretarako puntu hauek bilduko dira: hasteko, politika publikoen nozioan sakonduko da, kulturari, kasu honetan, politika publikoetatik egingo zaiolako hurbilena; ondoren, politika publiko hauen esparruan, kultur politikak eta hauen zentzu eta bilakaeraz ñabardura batzuk egingo dira, eta, EAEko eremuan bilakaera eta kontzeptu hauek zein forma hartu dituzten azaltzen saiatuko da. Genero-begirada zehar-lerro izango da erronka edo proposamenen inguruko gogoeta batekin emango zaio amaiera artikuluari.

2. Kultur politika publikoak

2.1 Kultur politika publikoak eta feministak. Kokapen bat nozioan

Politika publikoek azpimarra pare bat egin nahi ditugu, kultur politikak erakunde publiko zein pribatuek diseinatuak izan badaitezke ere, kasu honetan, eragile publikoen esparrukoak hartuko direla jo-puntuan. Kultur politiken logika, beraz, politika publikoek testuinguru neoliberean izaten ari diren logikarekin bat datorrela uste dugulako egingo da hurbilpen hau.

Zerk bihurtzen du arazo bat politiko? Noiz erabakitzen da politikoki esku-hartzea, eta nola, nork, nondik egiten da hori? Lucas Plateroren (2013) iritziz, “politika potentzialki eraginkorra izateko gizarteko arazoak gain beratu ulertzeko balioak sartu behar ditu, bestela litekeena da politikak porrot egitea” (Platero, 2013:61). Politikek “bizitza sozial propioak” dituzte baina “botere borondatearekin ere lotzen dira politikak, beste era batera esanda, pertsuasio eta legitimazio ariketarekin (Majone, 1989¹). Horregatik, garrantzitsua da politiken itzulpen eta interpretazioaren biografia zein dinamiken inguruan hausnarketa egitea (Shore, 2010).

Erakunde publikoen esparruan formalki hartutako erabakiak dira politika publikoak, baina aurretik eragile publiko eta pribatu ugari parte hartu duten elaborazio-prozesu bat izan da. Carol Bacchiren (1999) arabera politika publikoek funtzionatzen ez duen zerbaiti egiten diote erreferentzia, problema bezala da hau definitua eta esku-hartze politikoa positiboa eta arazoaren konponbide gisa planteatzen da.

Politika publikoek ordea, sarritan, politika publikoen existentziaren muinari entzungor egiten diote, eta talde-helburuak edo amaierako onuradunak izaten dituzte helburu (Subirats et al. 2008). Subiratsentzat

¹ Majone, G. (1989). *Evidence, Argument and Persuasion in the Policy Process*. New Haven, Yale University Press

arazoen azterketarik gabeko politika publikoak diseinatzeak sistema erreproduzitu besterik ez duela egiten uste du, hau da, dominazioa izaten dela helburu. Izan ere, arazoa”, funtsean, “eraikuntza sozial eta politikoa da. Kokapen honetatik, honela definitzen dituzte politika publikoak:

“Una política pública se definiría como una serie de decisiones o de acciones, intencionalmente coherentes, tomadas por diferentes actores, públicos y a veces no públicos –cuyos recursos, nexos institucionales e intereses varían- a fin de resolver de manera puntual un problema políticamente definido como colectivo. Este conjunto de decisiones y acciones da lugar a actos formales, con un grado de obligatoriedad variable, tendentes a modificar la conducta de grupos sociales que, se supone, originaron el problema colectivo a resolver (grupos-objetivo), en el interés de grupos sociales que padecen los efectos negativos del problema en cuestión (beneficiarios finales)” (Subirats et al. 2008:38).

Alabaina, politiken partzialtasuna eta ildo positibista, bai eta logika ekonomikoaren mendekotasuna medio, politiken ebaluazioa galera/onura terminoetan neurtzen a sarri. Horregatik beharrezkoa da politika publikoen testuinguru eta prozesu historikoa ezagutzea politika publikoak gizarte-eraikuntzak direlako, historikoki kokatuak, eta botere-posizio desberdinak dituzten gizarte-eragileen arteko eztabaida-agertokietatik abiatuta eratzten dira, batzuen eta besteen arteko "konpromiso-oreka" batean”. Marcela Alejandra Paísek (2014) dioen gisan, politika territorio baten subjektuen emaitza baldin bada, politika publikoek aldaketa hauek ulertu eta erantzun behar dituzte.

Eta feminismoaren eragina errealitate bat da Euskal Herriko testuinguruan. Horren adibide dira hamaika mobilizazio, argitalpen, aldarri eta abarrak. Genero-berdintasuna kontuan hartzen duten politika publikoak ere gero eta ugariagoak dira gurean. Kultur politikak ere generoaz gogoeta egiteko leku dira, oso nabarmen gainera, kulturak, garapen sinbolikoarekin duen loturagatik . Baina zer gertatzen da kulturaren kasuan bada? Edo zer diogu kultur politikez ari garenean?

Euskal Herria gure ikerketaren territorio gisa hartuta, jendartean izaten ari diren aldaketak politika publikoetan zer nola islatzen ari diren, eta, alderantziz, politika publikoek gizartean zein aldaketa eragiten ari diren behatzea, beraz, ezinbestekoa da. Aldaketa horiek kulturaren esparruan esanguratsuak izan dira.

2.2 Kultur politikak. Kokapen bat historian

Historikoki kultur politikek lotura handia izan dute Estatu-nazioen eraikuntzarekin. Europan XVIII. mendetik aurrera hasitako prozesu honek, ordea, azken hamarkadetan ahapaldia izan du Estatu-nazioaren rol tradizionala aldatu egin delako eta Estatuaren subiranotasuna zalantzan jarri delako (erreferentzia). Izan ere estatuz gairako agente berrien eragina geroz eta nabarmenagoa da (Europar Batasuna kasu²) eta estatuz azpikodeszentralizazioa³ ere errealitatekultural ezberdinen agerpenaerri du (Rubi Arostegi eta Rius Ulldemolins, 2016; Zallo, 2011).

Kulturaren kontzeptuak berak ere definizio eta adiera ugari izan ditu historikoki. Hitzaren jatorri etimologikotik hasita, latineko *colere* hitza du kulturak bere oinarrian eta, *colore* horren esanahien artean daude bizitzea, lantzea zein gurtzea. Hau da, kultura, etimologikoki naturatik eratorritako kontzeptua da, naturaren garapenaren kontrola esan nahi du: “naturak beti du zerbait kulturala, eta kulturak, berriz, lan

² Europar Batasunak kulturaren inguruko kompetentziak mugatuak izan arren, azken urteetan politika kultural europarra indartzeko hautua egin da *Creative Europe* edo subsidiariorotasun printzipioa eskualdetara hedatuz.

³ Estatu bera baino, tokiko erakundeak izan dira politika kulturalen jorrapenean eragile aktiboak. Gainera, deszentraliziorako joera nabarmenagoa izan da aniztasuna nazional edo/eta kulturala duten herrialde federal edo kuasi-federaletan, Quebec, Eskozia edo Katalunia adibide. Herrialde zentralizatueta ere gertatu da joera hau eraginkortasun handiago eta ekintza publikoa suspertzea helburu izan da.

deitzen diogun naturarekiko etengabeko trafikoa oinarritzen dira” (Eagleton, 2001:15). Eagletonen (2001) arabera, kulturaren semantikak gizateriaren trantsizio historikoaren ñabardurak azaldu ditzake.

Raymond Williamsen kultur kritikariaren *Marxism and literature* (1977) lanean kultura, ingelesezko hiru hitz zailenetarikoa zen hura, hiru adieretan banatu zuen XVIII-XIX. mendera bitarteko tartean: (a) lehen adieraren arabera, kultura, herri baten garapen intelektual, espiritual eta estetiko da, zibilizazioarekin oso lotua; (b) bigarren adierak, gizarte baten bizi-ohitura gisa definitzen da kultura garai, talde batekin lotuz. Definizio honek antropologia kulturalarekin bate egiten du, kultura ideia, sentimendu, sinesmen eta aberren sare konplexu gisa hartuz; (c) hirugarren adierarentzat kultura ekintza intelektual eta batik bat artistikoarekin loturiko obra eta praktikak dira. Azken adiera hau hedatu zen XIX. eta XX. mendeetan modernitatearen testuinguruan eta Estatu-nazioen eraikuntza garai betean.

Ez gara kultura definitu nahian alferrikako enklaustrazio kontzeptuarekin sartuko. Ikerketa honetan kultura “talde espezifiko baten bizitza forma osatzen duten balio, ohitura, sinesmen eta praktika multzoa” (Eagleton 2001: 58) moduan definituko da. Praktika hitzean azpimarra egin nahi da kultura zein identitatea praktikan ekoizten direla azpimarratzeko (Apodaka, 2015).

Aipatutako kulturaren ulerkerak hauek Terry Eagleton (2001) eta Eduardo Apodakaren (2007) arabera hiru aro nagusi igaro dituzte: aro tradizionala, modernitatea eta modernitate-ostea. Aro tradizional edo aurremodernoa, kultura komunitatearekin eta identitatearekin lotzen zen; *berez* jasotako bizitza forma bat zen, alegia. Ondoren, modernitatean kultura zibilizazioarekin lotzen da, eta goi- eta behe- kultura bereiztuko dira, kultura elitearen kulturarekin berdinduz. Hirugarren aroan, modernitate-ostean eta kapitalismo garatuaren testuinguruan, kontsumoaren bidez erdiesten den bizitza sozialarekin eta identitatearekin du zerikusia kulturak.

“Lo que este término anunció fue que la lucha entre la civilización minoritaria y la barbarie de masas, quedaba oficialmente superada. (...) ahora triunfaba algo que ya no caía bajo las dos categorías. Era populista, pero en absoluto subversivo. Incluía el arte elevado, pero ahora totalmente asimilado por la producción de bienes de consumo; abarcaba la cultura de masas de alta sofisticación junto con la experimentación de vanguardia y la banalidad comercial” (Eagleton 2001:185).

Hau da, modernitateko hierarkietatik aldentuta, kultura *jasoak* eta *arruntak* bat egiten dute, *hibridatuta*. Apodakak (2007) diosku hibridazioa, izan, ez dela gauza berria, begi gertatu izan dela kultura guztietan. Baina, egun nabarmenagoa da merkatu globala eta teknologiak medio. Modernitatean kulturak gizarte- eta nazio-kohesiorako tresna izan ziren, beti kultura unibertsalarekin lehian. Orain, modernitate-ostean, merkatuak agintzen du kulturaren ideologia, eta hark ez ditu onartzen bere horretan dirauten kulturak, merkatuaren logikan ez baitago *betikoarentzat* lekurik, ez bada eraberrituta. Hau da, gaurko hibridaziorako joera merkatu logikaren eskutik dator, nahasian agertzen zaizkigun kulturak goraiatzeko dira eta “norberak kultur produktuak bere gustura, bere interesen arabera, bere modura antolatzen ditu bilduma berezi batean, beren berengiko bilduman” (*ibidem*, 122).

Bilakaera hau lurraldegabetze eta globalizazio prozesuekin batera gertatu da (Sassen, 2013, *in* Goikoetxea, 2017). Lurraldegabetzeak migrazioen, desnazionalizazioen eta desmaterializazio (edo digitalizazio) prozesuen bidez gertatzen dira. Globalizazioa, bestalde, produktuen zabalkundea baino zerbait gehiago da; globalizazioak herrialdeen arteko eta kultur-mailen zein kultura-eremuen arteko harremanen antolaketari eragiten dio. Globalizazioaren iragankortasuna kontuan izanda, eta kultur-industrietan eta hedabideetan merkatu-logika erabat gailendu den garaiotan, kultur-eskubideek identitategintza-kontsumoaren mehatxua ateetan daukate.

Faktore hauek kultur-politikekin uztartuz doaz. Politika kulturalen bilakaera egiturazko zein harremanezko konplexutasunagatik ezaugarritzen da (Rodríguez, 2012). Kultur politikak XX. mendearen

bigarren erdialdean garatuko dira, Bigarren Gerra Handiaren ostean eta Nazio Batuen Sistemaren osaketaren ondotik (Bayardo, 2008). Herritarrak goi-kulturara hurbiltzeko helburuaz, gobernuen laguntzak ugaritu egin ziren, eta, ilustrazioaren karira Europako espektro ideologikoa *demokratizazio kulturala* defendatzen hasi zen (Zamorano, 2018).

XX. mendean zehar aldi berean prozesu multzo bat gertatu zen: legitimazio politikorako hainbat asmo dituen kultura erabiltzea; UNESCOren topaketek, adierazpenek eta hitzaldiek gero eta pisu handiagoa hartzea; Bigarren Mundu Gerraren ondoren estatuak eta haien irismena birsortzea; arteak gero eta lotura handiagoa izatea esparru ekonomikoarekin; eskualdeetako eztabaidak garatzea (batez ere Europan eta Latinoamerikan) kultura-politiken irismenari buruz.

60ko hamarkadan, 68ko maiatzeko mugimenduaren ostetik, ordura arteko eskema estetikoak gainditzeko nahiak handitu egin ziren eta ordura arteko kultura-politiken azpian zeuden intelektual eta instituzional elitizatzaileak zalantzan jartzen hasi ziren (Zamorano, 2018). 68ko Mugimenduak, eraldaketa sozialerako bide-orri bat markatu nahi izan zuen ekintza artistikoa oinarri hartuta eta praktika kulturaletan ez ezik, politika kulturalak aldatzea ezinbestekotzat jotzen zituzten. Gainera Frantziak kulturaren instituzionalizazioaren aitzindaritzat hartu zuen: 1959an, lehenengoz, bera izan zen Kulturako Ministerioa sortu zuen lehen herrialdea (Wangermée, 1991:57; in: Zimmer eta Toepler, 1999). Jarraian, 1965ean, Amerikako Estatu Batuek emango dute urrats hori *National Endowment of the Arts* (NEA) fondo federala sortuz. Urte berean Britania Handian lehen Estatuko Sekretarioa ezarri zen politika kulturaletan arduraduna zena eta Herbehereetan Kultura, Atsedeen eta Gizarte Langintzako Ministerioa sortu zen (*ibidem*).

Giro honetan aipagarria da UNESCOk bere herrialde-kideetako politika kulturaleri buruzko monografikoa plazaratu izana. Modu teoriko batean orduan hasi ziren politika kulturalen lehen azterketak egiten (Rodríguez, 2012). Aitzindariak izango dira 1974an Ameriketako Estatu Batuetan eratutako *Social Theory, Politics and the Arts* Eskola eta 1978an Dick Netzerren *The Subsidized Muse* lana (Zimmer eta Toepler, 1999). Obra hauen politika publikoen eremuko lehen *policy analysis* kontsideratzen da. UNESCOk abiatutako bide honetan kultura politika hasiberri hura arteetara, ikuskizunetara edo kulturgintza sinboliko eta intelektualera mugatzen zen, ekonomiatik edo gizartetik aldendutako esfera gisa, "kultura" modernitateara sartzeko ate posible moduan ulertzen zen (Nivón Bolán, 2013).

Hasiera batean politika kulturalak hiru oinarritzko helburu zituztela esan daiteke: kultura ondarea babestea, sorkuntza sustatzea eta arteak herritarrengana gerturatzea. Hau da, eraldaketa sozialarekin lotu da batik bat kultur politika (Rius Ulldemolins, 2014). Ordea, hasierako borondate hura herrialde bakoitzaren errealitateara ekarri behar zen eta aldatzen joan da arteak eta kulturak gizartean zuten posizio zein kultur politikaren eta gizarte ondorioen arteko uztartzearekin batera (*ibidem*).

1970eko hamarkadatik aurrera, modernitate-ostean, hasi ziren kultur-eskubideen inguruko hainbat kontzeptu zehazten. Esaterako, kultura ez dela soilik artea eta letrak, kultura garapenarekin lotuta dagoela, askotariko identitate kulturalak babestu behar direla edota kultur-komunitateak egon badaudela eta horiek ere behar dutela beren babesa. Hamarkada honetan Amerikako Estatu Batuetan hasi ziren politika kulturaleri buruzko azterketak egiten. Garai hartan ekonomia kulturala zein politika eta masen kulturaren arteko harremana aztertzeari ekin zitzaion batik bat eta ordutik eremu honetako praktika eta erramintak definitzen eta ikertzen hasiko dira (Miller eta Yúdice, 2004), ez aldaketa eta tentsiorik gabe baina. 80ko hamarkadan ia begirada ekonomizista eta instrumental honen mugez jabetuko dira eta praktika kulturalak tresna politiko eta ekonomikoekin aztertzeak muga zein gabeziak zituela kritikatu da (Barbieri, 2012). Garai hartan, gainera, ikasketa kulturaletikiko hurbilpena (McRobbie, 1996) eta praktika kulturaletikiko ez ezik politika publikoetikiko harremana (Lewis eta Miller, 2003) sustatzen joango dira pixkanaka.

Garai honetan, bestetik *demokratizazio kulturalak* “demokrazia kulturalari” eman zion paso, eta ekintza zein politika kultural publikoen bide aniztasun soziala izangoda xede. Demokrazia kulturala kontzeptuak garrantzia handia hartu du azken urteetan (Hadley eta Belfiore, 2018) kontua da, demokrazia moduan ulertzen den parte-hartze masiboa ez dela gertatu demokrazia kulturalarekin (Wu, 2007; *in*; Barbieri, 2014). Espainiako kasuan ikusiko dugun moduan, demokrazia ezberdinekin batera heldu ziren politika kulturalak ordena politiko baten oinarri berriak eta gizarte-ikuspegi pentsatzeko beharra medio (Wortman, 1996:65). Izan ere, eta Jaron Rowanen hitzak errepikatuz “Estatu Espainiarrean modernizatorako demaseko urgentziaz jokatu zen, benetan behar zena, modernizazioa hastea zenean” (Rowan, 2016:85).

Hamarkada baten ostean hasiko dira politika kulturalen inguruko lehen azterketak argitaratzen, eta, batik bat, ekonomia masa kulturarekin lotzeko beharretik sortu ziren. Ordutik, “ikerketa eremu honetako helburu, praktika eta erramintak ikertzen eta definitzen hasiko dira” (Miller eta Yudice, 2004: 46-48). Ikuspegi soziologiko batetik, kultura ekonomiaren gainegituran kokatzen zuten azterketa materialista eta historikoak nagusituko dira, baina hamarkada baten bueltan, tradizio eta praktika kulturalak objektibatutako gainegitura bat baino gehiagokotzat jo zituzten (Barbieri, 2012). Pixkanaka, politika kulturek garaiko Ikasketa Kulturalen agendan leku egin zuten, eta ikertzaileak praktika kulturaletan ez ezik, politika publikoetan interesatzen hasi ziren (Lewis eta Miller, 2003; Barbieri, 2012).

Bi hamarkadaren bidea eginda, 80ko hamarkadan kulturgintzaren esparruan bestelako aktoreen nagusitasuna handitzen joango da, eta kultur industriaren hedapenak abiada hartuko du. 80ko hamarkadan industria kulturalen hazkundea Europar Batasuneko herrialdeen artean geroz eta legitimitate handiago zuen behetik gorako (*bottom up*) gobernantza ereduarekin bat ulertu behar da. Eredu honek espazio kulturalen demokratizazioa zuen helburu, baina irekidurak zenbait prozesu exekutiboren moteltzea besterik ez duen ekarri askoren ustez, eta zenbait kasutan goi-kulturari zein kultur-industriari loturiko taldeak debate publikoan sartzeko bidea izan zen (Zamorano, 2018).

Honela, eta kulturaz gaindiko aldaketak kontuan hartuta, kultur-industriak hiri-kulturaren garapenaren faktore erabakigarri bihurtu ziren. David Harveyk (1989) dio, 80ko hamarkadaren bueltan hasitako joera honen benetako egikaritzea 90eko hamarkadan izango duela, herrialde garatuen kultur politiken norabide lokal eta enpresariala orduan suertatu baitzen. Honek, kultur politikek ordura arte zuten eraldaketarako ahalmena deslegitimatatu zuen askoren ustez (Bianchini, 1993) eta kultur politiken estrategiak prozesu *akumulatibo* baten itxura hartu du; hau da, hiri-politika kulturalaren oinarriaren bilakaerak ez du progresio-prozesu soil bat jarraitu, argudio berri bakoitzak tradizionala ordeztu du (*ibidem*).

Orain arte kultur-politikak ardaztu zituzten elementuak aldatu egin dira: hala nola, herritarren parte-hartze kulturala murriztu egin zen eta komunitate mailako kontsumo artistikoa baxutu (Zamorano, 2018). Jim McGuigan (2004) analista kultural britaniarrak ere politika kulturalen bilakaera kapitalismoarekin bat ulertzen du. Bere ustez, politika kulturalen hastapenetatik XX. mendearen bukaera arte hainbat modutara justifikatu zen euren ezarpena, merkatuaren akatsak estaltzea, besteak beste.

Bayardoren (2008) arabera kultur-politikek hiru aro izan dituzte: lehena nazioantzerantz bideratua; bigarrena, kultur-industriaren eta komunikabideen aroa; eta hirugarrena, XXI. mendearen lehen hamarkadatik aurrerakoa, kultura eta giza-garapenaren arteko loturagatik ezaugarrituta dagoela baieztatzen du. Aro berri hau aipatutako nazioarteko erakundearen ahultzeagatik, kapitalismoak herrialdeen artean sortutako lehiagatik zein ezberdintasunengatik, zein kulturaren merkaturatze masiboagatik ezaugarritzen da besteak beste.

Hala ere, azpimarratu nahi dugu, aldaketa hauek ez ziren mundu mailan erritmo eta forma berdinetan gertatu. Izan ere, Kultur politikak ere kontzeptu historiko eta testuinguruaren araberrakoak dira ordea. Kultur politikak nazioartean eraikitako arazo eremu bat dira, hogeigarren mendearen bigarren erdian, mundu gerren eta Nazio Batuen Sistemaren osaketaren ondoren egikaritu (Bayardo, 2008). EAEn zer gertatu den behatzea interesatzen zaigu guri.

3. Kultur Politikak EAEn

Euskal Autonomia Erkidegoan kultur-kudeaketa zein kultur-politikak, nazioarteko ildo eta joerek baldintzatuak izan dira, “batez ere, Europako hainbat erakunderen adierazpenek eta bileretan hartutako erabakiek baldintzatzen dituzte kultura-politika hauek” (Zilbeti, 2016:36). EAeko kultur politiken bilakaera Europako herrialdeekin bat ulertu behar den arren, oso bestelako izan da Espainiar Estatuaren eremuan. Espainiako Gerra Zibilaren ostean kokatzen bagara, demokraziaren eraikuntza klase politiko frankista eta oposizioko indarren arteko paktu batetik eraikitzen hasi zen (Alonso eta Muro, 2011), azkar, Europako gainerako herrialdeekin parekatu nahian (Zamorano, 2018), eta, kultur politikak ere presa handiarekin hasi ziren eraikitzen. Espainiako Estatuan sistema konfederala ezarri zen, Autonomia Erkidegoek leku zentrala hartuko dute instituzioetan, eta, Katalunia, Galizia eta Euskal Herriaren nazio eskariak nolabait aintzat hartzen zituen eskema politiko administratibo bat ezarriko da Estatuaren batasuna ezbaian jarri gabe (López Aguilar 1999).

Ramón Zallo komunikazio eta kultur adituak egin ditu Trantsizio Garaitik gaurdainoko EAeko kultur-politiken analisi sakonenetako bat. Zallok (2011) hiru fase bereizten ditu politika hauetan: normalizazioarena (1979-1987) instituzionalizazioarena (1988-2001) eta gobernantza kulturalarena (2002-2011). Lehen bi etapetan “kulturaren gobernuaren” presentzia nabarmentzen da, hau da, politikak du zentraltasuna (Martinez de Alborniz, 2012). Hirugarren fasean, politika kulturaren garapena bultzatu zen Zalloren ustez: kulturak autonomia irabaziko du politikarekiko. Ordea, euskal jendarte eta kulturaren etengabeko eraldaketek (Esteban, 2012) laugarren etapa bat iragartzen dutela.

Hiru fase hauetan ito ezberdinak aipatzen ditu Zallok:

- **Kulturaren Euskal Kontseilua** (2000): eragile publiko eta pribatuen topaleku izatea zen bere xedea. 2001-2009 bitarteko plangintza zuen ezaugarri eta “motor legitimo eta aktibo” (Zallo, 2011) bilakatzea zuen helburu. Hogeita hamabost lagunek osatutako organo mistoa zen Kulturaren Euskal Kontseilua; hogeit ordezkeri ziren agente kulturaletakoak, eta hamabost instituzio publikokoak.
- **Euskal Kulturaren Plana** (EKP) (2004): Plan honen beharizana azpimarratzen da modu estrategiko eta zorrotzean, eta instrumentu gisa “pretendía reflejar el acuerdo en la comunidad autónoma vasca entre los distintos agentes públicos y privados sobre la visión estratégica, las prioridades para el conjunto de la cultura vasca, los criterios de actuación y las acciones públicas con efectos estratégicos” (Zallo, 2011:61). Plan estrategiko honek 2007ra bitarteko egitekoak markatuta zituen eta 2015era bitarteko lan-ildoak ezarrita. Prozesu parte-hartzaile baten bidez diseinatu zen, hirurehun agentetik gora parte hartzen, lan-talde ezberdinetakoak. Erakunde honen eraikitzearen gakoa, kulturak garai hartan hartu zuen definizioa zen Zalloren ustez.

Plan honek, lau urtera, 2008an aurreikusten zuen ebaluazio estrategikoa egin zuen eta 2010ean egin behar zen bigarrena. Ordea, EKP Kulturaren Aldeko Herritartasun

Kontratuagatik izan zen ordezkaturia, eta, beraz, 2015era bitarte jarri zituzten ardatz estrategikoak bere horretan gelditu ziren⁴.

Zalloren ustez, Plan honek aurrerapauso garrantzitsuak finkatu arren sektorialegia izan zen, eta ildo batzuk kontzienteki baztertu zituen euren konnotazioa politikoagatik (sistema komunikatiboa kasu) edo konplexutasunetik (hezakuntza artistiko eta kulturala). Esperientzia falta, kultura digitalizazioak ekarriko zituen aldaketekiko ziurgabetasuna zein kulturaren problematikarekiko zegoen agenteen kontzientzia eza Plana garatzeko traba izan ziren Zalloren ustez.

“Las estructuras decisionales y de gestión tuvieron una limitada adaptación o con un funcionamiento más lento que el ritmo que requieren las necesidades; y lo peor es que los presupuestos públicos no estuvieron a la altura de los diagnósticos del KEP” (Zallo, 2011:63).

Planaren garrantzia azpimarratzen du Maider Zilbetik (2016) ere. Izan ere “plan hau da EAEn kulturaren esparrua zein den mugatzeko helburua zuen lehen plan instituzionala” (Zilbeti, 2016:73). Kulturak gizadia eraikitzen zuela azpimarratzen da, eta kulturaren adiera zabala “ingurunea eta gizarte harremanak bere esparru sinboliko eta komunikatiboetan nahiz balioen alorrean kudeatzeko ematen den erantzun multzoa da, eta gizarte mailako elkarreragina nahiz onarpena edo talde bateko kide izatearen sentimendua ahalbidetzen” dituela azpimarratzen du Planak, “kultura komunitateen bizimodua” dela “identitate espiritual” eta horregatik, beharrezkoak direla “antropologia, soziologiatik zein etnografia kulturaletatik ikerlan kulturalak deitutakoetan egindako ekarpenak”.

Plan honek, adibidez, ez du generoaren begirada kontuan hartzen. “Berdintasuna” sexu-generoaz hitz egiteko baino, kultur-esparruen nolabaiteko orekaz aritzeko erabiltzen da. Ordurako, Eusko Jaurlaritzak Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunaren Legea idatzita zuen 2005ean.

- **Kulturaren Aldeko Herritartasun Kontratua (2010):** Kulturaren Euskal Planak sei urteko ibilbidea egin ostean, PSOE-EEren Gobernuak bertan behera utzi zuen eta Kontratu hau proposatu zuen ordezeko. Kontratu honek, garrantzia handiagoa ematen die sorkuntza-fabriken eta berrikuntzaren aldarriari. Kultura, errekurso ekonomiko gisa azaltzen da batik bat, eta hauek dira lerro estrategikoak: sorkuntza sostengatu; kultura-industria eta enplegua; berrikuntza eta lehiakortasuna sustatu; baliabideak metatu-finantziabide berriak; kanpo-proiektzioa eta abar.

Zalloren (2017) iritziz Euskal Herrian subiranotasunaz asko hitz egin da baina subiranotasun politikoa lortu nahi izan da ez subiranotasuna kulturala, eta horregatik kritika egiten du instituzioetatik euskal kulturari egin zaion trataeraren inguruan:

⁴ Ondorengo hamar ardatzak ezarri ziren: (1) Construir el Sistema Vasco de Cultura mediante la convergencia de instituciones, recursos y agentes conformando una red cultural interterritorial (2) Establecer un sistema de información y seguimiento sistemático de la situación y evolución de la cultura en la comunidad autónoma vasca y realizar planes estratégicos sectoriales y estudios de situación (3) Aplicar nuevas políticas públicas de fomento de la conservación, investigación, creación, producción, comercialización y difusión cultural (4) Dinamizar el patrimonio cultural y su cadena de valor (5) Dinamizar las artes visuales y escénicas (6) Dinamizar las industrias culturales (7) Potenciar la presencia del euskera en la cultura (8) Promover la cultura como eje de cohesión social en el marco de la sociedad del conocimiento (9) Favorecer la reapropiación y el uso adaptado de las nuevas tecnologías y formas expresivas en creación y producción (10) Proyectar la cultura vasca internacionalmente.

“No es admisible que la especificidad cultural vasca sea presentada siempre con orgullo como signo de identidad y distinción y, simultáneamente, no se pongan todos los medios institucionales imaginable para recrear, desarrollar y extender cultura y lengua” (Zallo, 2017:135)

Iñaki Martínez de Albeniz soziologoa da EAEko kultur-politikak aztertu dituen beste aditu bat. Bere tesi nagusia da, EAEko kultur-politikak, kulturak izan duen garrantzia faltagatik ezaugarritzen direla, kultur-politikak kultura politikoarekin nahastuz. “Kultura politikoa izango da, gizarteko politikaren artikulazio konpondu gabea, politika kulturalaren forma eta edukia gehiegi zehaztuko dituen. Hala, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) kultura-politikaren ezaugarria politikaren zentraltasuna izango da, kulturaren kaltetan” (Martínez de Albeniz, 2012:150). *Politikarentzat egindako kultura* izan dela azpimarratzen du Martinezek, eta Kulturaren Euskal Planak hori agerian uzten zuela. Bestetik, Diputazioen eskumen karga ere azpimarratzen du, nahiz eta udalek izan “eginkizunak edo eskumenak esleitzean instantzia argienak dituztenak” (*ibidem*, 158). Euskararen zentralitatea ere, kultur-politiken beste konstante bat dela aipatzen du, baina eskumenen konkurrentzia etengabea ere.

Izan ere Martinezen arabera, “lehia desadostasunen lurraldetzat hartzen da, eta horrek kultur proiektu integrala eragozten du. Legediak ere ez du laguntzen, eta ez da argia eskumenak hiru administrazio-mailen artean banatzeko orduan” (*ibidem*, 157). Bere azterketan kultur-politiken egituraketan parte hartze duten aktoreak elkarrizketatzen ditu eta kultur politika enplegutzat zuen Jaurlaritzako kide batek dio “¿Qué es lo que queréis vosotros? Nunca nos hemos sentado para ver qué cultura hace falta en este país, sólo para las subvenciones” (*ibidem*, 155).

Puntu honi dagokionez Euskal Autonomia Erkidegoan Lurralde Historikoen Legeak (LHL) ezartzen ditu Eusko Jaurlaritzaren eta aldundien arteko eskumen-banaketak. Kulturari dagokionez, bai Estatutuak bai LHLk nolabaiteko kultura-eskumenak banatzen dituzte Jaurlaritzaren, aldundien eta udalen artean, baina esperientzia eta ohituren araberrako erabakiak ere hartzen dira oraino. Berez, Eusko Jaurlaritzari dagozkio jarduera profesionalaren ekoizpena, sustapena pizteko jarduerak eta ondareari lotutako legedia, eta aldundi eta udalei, berriz, erakustaldiekin, kultura-eskaintzarekin eta jarduera amateurrari laguntzea. Eskumenen esleipenaren lausotasuna eta "kulturaren sustapena" moduko adierazpen zehaztugabeek “kultura-politika baten egiturazko defizitetako bat sortuko du (...): eskumen-konkurrentzia erabaki gabea, "non dago nire partea?" gailentzea eragiten duena” (*ibidem* 151).

Nafarroaren kasua bestelakoa da. Kultura eta kirol departamenduaren agintepeko Vianako Printzearen Zuzendaritza orokorrari dagokio ondarea zaindu eta sustatzea, eskaintza kulturalaren planifikazio, artista eta sortzaileen eta erakunde kulturalen lana sustatzea, museoan/artxiboen/liburutegien kudeaketa eta udalei diru-laguntzak ematea. Udalen esku geratuko liriteke tokiko kultur eskaintzaz eta ekipamendua (Nafarroako Gobernua, Kultura eta Kirol Departamentua, 2021).

Eskumenen banaketaren puntuari jarraituz, Zalloren (2011) arabera, Administrazio zentral eta autonomikoek ekipamendu handi eta ekoizpen-unitate batzuk bere gain hartu dituztela, (Orkestra, Kono Nazionala, Ballet Nazionala, Antzerki Lirikoa, Gazte Orkestra Nazionala, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa...) eta udalak berriz, gehiago bideratu dutela euren ekimena programen mantenuan edo kontzertu zein festibalen antolaketan. Eskumen eta kudeaketaren arazoa ez da kultur-politikan soilik aurkitzen dugun auzia; politika publikoaren eta orokorrean, zerbitzu publikoen afera da zer nolako egituraketa izan behar duen.

Ramon Zallok EAEko kultur-politikan egon diren ituak ukatu gabe, Haizea Barcenilla (2016, 2022) komisario eta Artean Historian doktoreak, EAEko kultur politiken bilakaeraren bestelako irakurketa bat proposatzen du. Barcenillak, batez ere, arte plastikoen esparruan jartzen du fokua eta kronologiaren jopuntu gisa Bilboko Guggenheim museoaren irekiera jartzen du; 1997. urtea. Bere iritziz, Guggenheim

museoak eragin handia izan zuen kulturaren definizioan zein bere funtzioen finkatzean, eta EAEko politika kulturalak joera globalago baten isla dira.

Izan ere, kulturaren globalizazioaren adibide da Guggenheim Museoa, kulturari baino, ikuspegi ekonomikoari arreta gehiago jarrita egindako proiektua izan baita. Kultura ulertzeko modua, gizarteak eta erakundeek kulturaren duten papera, aldatzea suposatzen du honek. Guggenheimen irekiera mira eta prestigio handia sortu zuen hasieratik, eta, hala ere, esperotaketatik urrun gelditu dira espektatibak. Hedabide handiek iragarri zuten Museoa, eta gerora, *Guggenheim efektua* (Esteban, 2007) deiturikoari ere jarraipena egin diote.

Hiru fasetan bereizten du Barcenillak museoaren bilakaera. Lehen fasean, artea inbertsio gisa deiturikoan, Guggenheim eta ekonomiaren berraktibatzea esplizituki lotzen dira. 90eko hamarkadaren buelta, ikusizko arteen ekosistemako ekoizpen eta proposamen ugari izan ziren, eta, diru-laguntzak izan zituzten hauen kultura herrikoi edo sozialagoekin alderatuta.

Politikariek eraikuntzei eta hiriaren irudi orokorrari arreta jartzen zieten bitartean, eremuko profesionalek edukiak garatzen zituzten laguntza sendoei esker, kultura-politikek arreta handiagoa jarri gabe; *laissez faire* batez hitz egin genezake” (Barcenilla, 2022).

Bigarren faseari “megamuseoaren zabalkundea” (2001-2011) izena jarri dio Barcenillak. Bilboko egoera kulturala erabat aldatu zen. EAEn, Artium museoa (Gasteiz) eta Tabakaleraren hasieran zein Krea ekoizpen zentroarenak izan ziren. Kontua da, Guggenheim sortu arte EAEko museoek ez zutela sistematikoki bisitarien kopurua neurtzen, eta, Guggenheimek arrakastaren neurria sortzetik erakarrirako zenbatekoarekin berdindu du sortzetik (EAEko sarrerarik garestiena duen museoa izan arren, miloi bat bisitari baino gehiagoko marka mantendu du 2020. urtera arte). Horregatik esaten du Barcenillak kulturaren merkantilizazioa suposatzen zuela honek; inbertsio publikoa onura ekonomikoa gisa ulertzen da, eta, gainera, kulturaren pribatizazioa suposatzen du honek, Bilboko Museo handia, diru publikoa jasotzen duen fundazio pribatu batek kudeatuko baitu. Logika bera jarraituko dute Bilboko Arte Ederren Museoak zein Gasteizko Artium-ek.

Hedabideek Guggenheim aipatzen eta azal bihurtu zuten, eta, EAEn izaten ari ziren beste esperientzia batzuei bizkar eman zitzaizkien; hala nola, Gaizteko Centro Montehermosori (2007-2011), Amarike Asanbladei (2008-2011) edo Bilboko Rekalde Salari Proiektu hauetan kulturaren produktzioa eta ekoizpena elkarrekin ulertzen dira, eta, ez dira atzerriko erakusketak ekartzen; aitzitik, artistei sortzeko baldintzak eskaintzen zaizkie, teoria eta diskurtso artistikoa aberasteko moduetan lagundu. Baina, publikoa erakartzeko zailtasunen mantra behin eta berriz izango dute gainean proiektu hauek, krisiaren testuinguruan, euren bide amaiera iristeraino.

Hirugarren fase bati emango zaio hala bide, paradigma aldaketa baten zantzuei. 2012-2020 bitartean, zehazki, 2015etik aurrera, Sorkuntza Fabrikek inbertsio gorakada handia izango dute. Orduetik, Barcenillaren iritziz homogeneizazio prozesu betean sartu gara; hausnarketa, debatea, esperimentazioa zein hausnarketa asmo utzi eta aisialdirako den kultura bat hauspotu da. 2020ko pandemiaren karietara, kultura-industriako proiektuei eman zaie laguntzarik gehien, Zorrozaurreko poloa adibide, sormena, diseinua eta teknologia berriak sustatu eta unibertsitate zein enpresa pribatuen esku utziz.

Barcenillak (2022) kultur-politiken joeren artean ondorengoak ere azpimarratzen ditu: kultura festa handi bihurtzeko joera, kontsumo azkarreko turismoa erakasteko helburua, proiektu txikien ezintasuna... Puntu honetan geundeke beraz.

1982an UNESCOk kulturaren lehen definizio instituzionala plazaratzearekin batera, *The Culture Industries. A challenge for the future of culture* izeneko dokumentuan atera zen eta bertan, Adorno eta Horkheimerrek kultura-argitaratutako lanak aipatzeaz gain, marka zein konpainia batzuen gehiegizko pisua, eta, kultur industriren papera goraiatzaren. Orduetik, kultur-industriei bidea zabaldu zitzaiela uste du zenbait autorek, eta kontsumo kulturala bihurtuko dela garapen kulturalaren neurgailu (Barbieri et al., 2011).

Barcenillaren hitzetan “polita litzateke printzipio kapitalistetatik at bizi den kultura sistema batez hitz egitea; fantasia litzateke, aldi berean” (Barcenilla, 2016:43). Ikerketa lan honetan, horregatik landu nahi dugu fantasiaren, irudimenaren edo imajinazio politikoaren gaia, “polita” izatetik haratago iruditzen zaigulako potentzial handiko ildoak izan daitekeela. Barcenillak dio oso beharrezkoa dela “eragin ekonomikotik aldentzen diren kultura aztertzeo irizpide berrien proposamenak” egitea, estetikoak zein esperimentalak, “sozialak, hizkuntzaren aldekoak edota genero ikuspegi ahaldungarriak eskaintzen dituztenak” (*ibidem*, 44).

Maidier Zilbetik dio, kultur-politikak “azpiegituren inauguraziora mugatzen” direla, “ondoren, erabilera politiko eta ekonomikoa izango duten ekoizpen-prozesuak aurrera eramateko” (Zilbeti, 2016:70). Eta gainera, kritika zorrotzagoa egiten du esanez, kultur politikak baina “ekimen zehatzez baliatuz, kulturaren gaineko *beraien* ulermen publikoa” egin dutela (Zilbeti, 2016:714). Ana Luz Castillo (2014) Guatemalako ikerlariak Kuba eta Espainian jardun da kultur kudeaketan eta bere ustez bost erronka ditu kultur kudeaketak: (1) sexu-genero sistema eta eraikuntza kulturalak (2) profesio kulturalen feminizazioa (3) kristalezko sabaia (4) soldata-arrakala (5) sorkuntzaren eta etxeko arduren bateragarritasuna (Castillo, 2014).

Azken hamarkada honetan kultur politiken tokian-tokiko birkokatzea suertatu da mundu mailan. Arestian aipatu bezala, kultur politiken bilakaeran tokiko garapenerako estrategikoko bihurtu da kultura eta erakunde publikoek bestela rola hartu dute zerbitzu kulturalen antolatzaile eta emaile izatetik, bideratzaile eta katalizatzaile izatera. Aldaketa hauek tokiko parte hartzea eta kultura komun baten proiektua indartu badezakete ere ikuspegi orokorrago duten kultura politika birbanatzaileak ahultzea eta hirien eta tokiko gobernuen arteko lehia handitzea ekarri dezaketela salatu da.

2011 urtean Sorguneak ikertegiak eta Lorea Agirrek elkarlanean euskal kultur gintzaren erronka eta proposamenez osatutako dokumentu batean honela diote:

“Euskal kulturak berriazko kultur politikak beharko ditu eta hiru ezaugarritan oinarrituta egin beharko du, bere indar-guneak izaki: gertutasuna, berezotasuna eta benetakotasuna. Hain zuzen ere, bere diferentziaren berrespena” (Agirre eta Sorguneak ikertegia, 2011:1).

Gertutasuna, berezotasuna eta benetakotasuna. Aipatutako EAEko kultur politiken ibilbidean, gertutasuna eta berezotasuna xede izatetik bigarren maila batera pasa direla ikus dezakegu. Izenburuetatik bertatik hasita, “euskal” izenlaguna kentzen zaio kulturari, eta, sormen fabriken zein kultur industriren logika globalari egiten zaio men, bertako kultur gile edo proposamenei begiratu beharrean. Sorguneak eta Agirrek (2011) aipatutako helburu horretara bideratuta hamabi estrategia aipatzen dituzte:

1. Euskal kultur gintzako eragile sozialak eta gizarte-erakundeak artikulatzeko pausoak ematea.
2. Euskal kultur gintzaren esparru edo adierazpide bakoitzak bere esparrua ekosistema moduan lantzen hastea eta berori biziberritzeko elementu nagusien plangintza egitea hiru arlotan: transmisioa, sustapena eta jakintza.
3. Tokian tokiko gizarte-eragileen eta tokian tokiko eragile publikoen indarrak norabide horretan jarriz, herri eta auzoetako kultur gile kolektibo eta sortzaileen konexioa sustatzea.

4. Maila orokorrean eta esparru bakoitzean, euskal kulturgintzaren belaunaldi-transmisorako bideak sortzea.
5. Hezkuntza arautuan euskal kulturgintzaren transmisioa txertatzea, ikastetxeen jardun kurrikularrean.
6. Euskal kulturgintzaren adierazpide bakoitzean ‘merkatu doituaren’ parametroak landu, adostu eta modu dinamiko batean inplementatzea.
7. Euskal kulturgintzaren hedapen edo erresonantzia-kutxa antolatzea Euskal Herriko hedabide-sisteman.
8. Euskal kulturgintzari buruzko jakintzaren arloa indartu eta artikulatzea.
9. Aurrekoari loturik, euskal kulturgintzari buruzko ikasketak indartzea.
10. Euskal sorkuntzaren edukiak Internet sarean eta teknologia berrietan txertatzea.
11. Euskalkulturgintzaren kanpo-hedapenak uantitatibo eta kualitatibo alantzea.
12. Euskal sorkuntzaren agertoki unibertsal iraunkor bat sortzea, prestigio handiko proiektu kultural-arkitektoniko batean.

Estrategia oraindik orain baliagarritasuna izan badute. 2010etik Kulturaren Euskal Behatokia izan da plan estrategiko ezberdinak egin ditu. 2023an aurkeztu duen azken planaren irakurketa faltan, azkenengoa, 2019-2022 Plana izan da. Plan honek bi zehar-lerro zituen: EAEko hizkuntza ofizialen sorkuntza indartzea eta gizon eta emakumezkoen aukera berdintasuna. 2023ko planak bi zehar lerro hauek zer nola neurtu dituen, eta, gerora begira, zer nola helduko diren behatzea interesgarria da.

Maidar Zilbeti arte kritikariak, 2010etik aurrerako kultur politika behatuz dio, “kulturaren aurrekontu publikoa desagertzeko arriskua” badagoela (Zilbeti, 2016:68) eta horregatik, kultur politikak politika publiko gisa ulertzeko” beharra aldarrikatzen du, merkatuaren interesak eta kulturaren merkantilizazioa interes pribatuetara soilik bideratuko duten aktoreen ekimenak aldatzeko. Gainera, kultur-politikak azpiegituren inaugurazioetara zein erabilera politiko-ekonomikoa duten ekoizpen prozesuetara erabat bideratzearen albo-kalteez mintzo da Zilbeti (2016:70) eta gai honen larria, kulturaren eskubidearen galerarekin lotzen du. “Egun, orotariko krisi garaian, kultura- politikaren inguruan hausnarketa bultzatzea interesgarria litzateke, agian, kultura- politika hauek aurre-suposatzen duten jendartearen kultura eskubideak bertan behera geratzeko arrisku handia dagoela sumatzen dugulako” (Zilbeti, 2016:69).

4. Ondorioak

Euskal Herriko kultur politiken bilakaera eta irakurketa sakon bat egiteko dago. Kultura politiketatik pentsatzeko, problematizatu eta erantzun beharreko arazo modu gisa ez da hartzen oraindik orain. Carol Bacchik (1999) azpimarratu moduan, politika publikoek funtzionatzen ez duten zerbaiti egiten diote erreferentzia, eta, euskal kulturaren ezagutza, transmisio eta erabilpen maila apalduz doala aditzera eman dute hainbat argazkik. Politika arazoi erantzuteko tresna da, eta Euskal Autonomia Erkidegoak politika publikoetan, zehazki, kultur politiketan dituen eskumenak medio, eraginkortasun gehiagorekin zukutu litekeen esparru bat dela deritzogu.

Kultur politikek historikoki joera batzuk izan dituzten arren, hauek, tokian tokiko errealitatera ekartzea beharrezkoa da, eta, Euskal Herriaren kasuan irakurketa asko aldatzen da, demokraziaren bilakaera bera bestelakoa izan delako, hasteko. Kultur politikak garatzen hasiko diren garaian Espainiar Estatua frankismo giro betean zegoen, eta beraz, estatu batzuek izan duten demokratizazio kulturalerako hautuak oso bestelakoak izan direla irudi luke. Politika kulturalak estatu-nazioen eraikuntza tresna izatetik, ekonomia eta masa kulturarekin lotura izatera pasa dira globalizazioaren eraginez, eta, horregatik bereizten ditu Bayardok (2008) kultur politiken hiru arazo nagusi: lehena, nazioari lotua;

bigarrena, kultur industriaren eta komunikabideekin lotua eta, azkena, kultura eta giza-garapenaren artekoa. Sailkapen egokia izan liteke Euskal Herriko testuinguruko errealitatea aztertzeko.

Kultur politiken estrategiak prozesu *akumulatibo* baten itxura hartu du; hau da, hiri-politika kulturalaren oinarriaren bilakaerak ez du progresio-prozesu soil bat jarraitu, argudio berri bakoitzak tradizionala ordeztu du. Azterketa hau askoz ere xeheago egitea interesgarria litzateke. Oraingo honetan kultur-politiken markoa eta bibliografian sakondu nahi izan da euskaraz eta Euskal Herritik horren hutsunea dagoela iritzita. Euskal Herrian kultura propioa eta bereizgarria egon badago, identitatearen eta garapenaren ikur da, baina, eragile eta herrigintzako esparrutik haragoko begirada falta dela uste da. Artikuluko kultur politika ezberdinen eredu eta gobernantza moduek garbi erakusten dute tokian tokiko errealitateari erantzuten dioten politikak asmatu beharko direla, eta, horretarako kontuan hartu beharreko faktoreak ondo definitzea beharrezko izango dela kultur politika arrakastatsuak eduki nahi badira.

Kulturaren ikuspegi pragmatikoa indartu da azken urteetan, kulturarekin “zer egin daitekeen” etengabe galdetzen duena eta ez kultura errekurso bezala hartzen duena (Yudice, 2002), eta kultur-politikek ere kulturaren erabilera instrumentaletik ez daude salbu; botere politikoaren legitimazio sinbolikoa ahalbidetzen dute. Euskal Herriaren kasuan, kulturari lotutako errelato historikoan kultur praktikak, eta oro har, euskal kultura bera, zein instituzionalizazio prozesuk, zein erabaki politikok desegin edo apaldu duten ikertzeko dago oraindik.

Politika publikoak plan eta estrategia multzo bat izatetik harago, eraldaketa tresna bat ere badira, edo, izan daitezke. Bertol Bretchek antzerkian fokua jarriz zioen antzerki-esperientziak publikoa bere lozorrotik esnatu behar zuela eta gizartearen bidegabekeriaren aurrean jarrera aktiboa hartzea animatu. Antzerkia, edozein kultur-jardunengatik aldatuta geure egin nahi genuke helburu hau.

5. Bibliografia

- Agirre, L eta Sorguneak Ikertegia (2011). “Euskal kulturagintza: nondik gatoz, non gaude, nora jo beharko genuke. Etabaidarako proposamen bat”. *Jakin*, 183-184, (pp. 11-91) Sarean eskuragarri: [https://elearning3.hezkuntza.net/013159/pluginfile.php/23213/mod_resource/content/1/Euskalkulturagintza.Lorea Agirre.pdf](https://elearning3.hezkuntza.net/013159/pluginfile.php/23213/mod_resource/content/1/Euskalkulturagintza.Lorea%20Agirre.pdf)
- Apodaka, E. (2007). “Kultura eta identitatea. Ikuspegi psico-soziologikoa”. Aranguren, G. (ed.). *Euskal Herria ardatz*, (pp. 95-187). Donostia: UEU.
- Autissier, A.M (2006). *Politiques culturelles des Etats européens, pour une nécessaire refondation*, Espaces Temps: Textuel.
- Alonso, G.; Muro, D. (2011). *The Politics and Memory of Democratic Transition*. London: Routledge.
- Bacchi, C. (1999). *Women Policy and Politics: The Construcion of Policy Problems*, London: Sage Publications.
- Badía, T; Marzo, J. L. (2006). “Las políticas culturales en el Estado español (1985-2005)”, *Soymenos.net*. (pp. 1-26).
- Barbieri, N.; Parta, A.; Merino, E. (2011). “Nuevas políticas, nuevas miradas y metodologías de evaluación: ¿cómo evaluar el retorno social de las políticas culturales?” *Papers: revista de sociología*, Vol. 96, Núm. 2, (pp. 477-500). Sarean eskuragarri: <https://raco.cat/index.php/Papers/article/view/241988>
- Barbieri, N. (2012). *¿Por qué cambian las políticas públicas?: Una aproximación narrativa a la continuidad, el cambio y la despolitización de las políticas culturales: el caso de las políticas culturales de la Generalitat de Catalunya (1980-2008)*. Universitat Autònoma de Barcelona, Departament de Ciència Política i de Dret Públic. Sarean eskuragarri: <https://ddd.uab.cat/record/112802>
- . (2014). “Cultura, políticas Públicas y Bienes Comunes: Hacia Unas políticas De Lo Cultural”. *Kult-Ur* 1 (1), (pp.

Akizu Bidegain, Maialen: Kultur-politikak hogeita batgarren mendean. Kontzeptu eta proposamenak Euskal Herritik

101-119). Sarean eskuragarri: <https://doi.org/10.6035/Kult-ur.2014.1.1.3>.

- (2017). “Políticas culturales en los ayuntamientos del cambio. ¿Hacia unas políticas públicas de lo común?” *Periférica Internacional. Revista para el análisis de la cultura y el territorio*, 18, (pp. 183-191).
- Barcenilla, H. (2016). “Kultur politikak: paradigma aldaketa”. *Jakin*, 215/216, (pp. 29-45).
- (2022). “El Museo Guggenheim Bilbao y las políticas culturales. La marca del cambio de paradigma”, *Estudios de Arte*, 59. http://www.aacadigital.com/contenido.php?idarticulo=1968#_ftn1 [Kontsulta eguna: 2023-05-13]
- Bayardo García, R. (2008). “Políticas culturales: derroteros y perspectivas contemporáneas”. *RIPS. Revista de Investigaciones Políticas y Sociológicas*, 7(1), (pp.17-29).
- Benjamin, W. (2003 [1963]). *La obra de arte en la época de su reproductibilidad técnica*, México: Editorial Ítaca.
- Bianchini, F. (1993). “Remaking European cities: the role of cultural policies”. Fr. Bianchini, Fr.; M. Parkinson, M. (eds). *Cultural policy and urban regeneration. The West European experience*. Manchester: Manchester U.P.
- Bonet-Martí, J. (2021). “Conflicto territorial y cambios en la cultura política: Cataluña-España Territorial conflict and changes in political culture: Catalonia-Spain”. *Athenea Digital: Revista de Pensamiento e Investigación Social*, vol. 21, num. 3, (pp. 29-89). Sarean eskuragarri: <https://doi.org/10.31235/osf.io/pu6wd>
- Castañeda Salgado, M. P (et al.) (2019). *Otras formas de (des)aprender: investigación feminista en tiempos de violencia, resistencias y decolonialidad*. Bilbao: Hegoa.
- Castillo Barrios, A. L (2014). “Gestión cultural y género”, *Manual Atalaya. Apoyo a la Gestión Cultural*, Cádiz: Universidad de Cádiz. Sarean eskuragarri: <http://atalayagestioncultural.es/capitulo/gestion-cultural-y-genero>
- Chauí, M.(2013). *Ciudadanía cultural: el derecho a la cultura*, RGC Libros.
- Chartrand, H.; McCaughey, C. (1989). “The Arm’s Length Principle and the Arts: An International Perspective – Past, Present and Future”. M. C. Cummings Jr eta J. M. Schuster (Eds.), *Who’s to Pay for the Arts?: The International Search for Models of Support*. American Council for the Arts. [https://doi.org/10.1016/0005-2744\(75\)90218-1](https://doi.org/10.1016/0005-2744(75)90218-1)
- Esteban Galarza, M. L (2012). “Euskal antropologiaren jauzi kontzeptualak eta euskal kulturaren haragitasunak”. *Ankulegi. Gizarte antropología aldizkaria. Revista de antropología social*, 16. (pp. 111-126).
- (2013). “Gorputzak eta politika feministak: feminismoa gorputz gisa”. Isa Castillo eta Iratxe Retolaza (koord.), *Genero ariketak*, (pp. 167-202). Donostia: Edo.
- (2017) *Feminismoa eta politikaren eraldaketak*. Zarautz: Lisipe.
- Eagleton, T. (2000). “La idea de cultura. Una mirada política sobre los conflictos culturales”. Barcelona: Paidós.
- Hernández-Hernández, O. (2019) Género: Una categoría útil en la gestión cultural. Chavarría Contreras, R., Fauré Polloni, D., Yáñez Canal, C., Rucker, U.; Mariscal Orozco, J. L. (Eds.), *Conceptos clave de la gestión cultural. Volumen I : Enfoques desde Latinoamérica*. Ariadna Ediciones.
- Goikoetxea, J. (2017). *Demokraziaren pribatizazioa*, Donostia: Elkar.
- Hadley; Belfiore, E. (2018). Are We Misunderstanding Cultural Democracy?, *Arts Professional* 20 September.
- Harvey, D (1989). *La condición de la posmodernidad*. Buenos Aires: Amorrortu.
- Kulturaren Euskal Behatokia (2018). *Kulturaren balio publikoa*. Sarean eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/informazioa/kulturaren-balio-publicoa-2018/web01-a3keberg/eu>
- Kulturaren Euskal Behatokia. (2019). *Eskubide kulturalak*. Sarean eskuragarri: https://www.euskadi.eus/web01-a3keberg/eu/contenidos/informacion/keb_argit_eskubide_kulturalak/eu_def/index.shtml
- Lewis, J. y Miller, T., (ed.) (2003). *Critical Cultural Policy Studies: A Reader*. Oxford: Blackwell.
- López Aguilar, J. (1999). “El Debate sobre el futuro del Estado de las Autonomías: Reflexiones a Propósito de las Declaraciones de Barcelona, Gasteiz, Santiago y Mérida”. *Parlamento y Constitución. Anuario*, (3), (pp. 7-41).
- Malinowski, B. (1975). *Los Argonautas del Pacífico Occidental*. Barcelona: Península.
- Majone, G. (1989). *Evidence, Argument and Persuasion in the Policy Process*. New Haven, Yale University Press.
- Martínez de Albeniz, I. (2012). “La política cultural en el País Vasco: del gobierno de la cultura a la gobernanza

Akizu Bidegain, Maialen: Kultur-politikak hogeita batgarren mendean. Kontzeptu eta proposamenak Euskal Herritik

- cultural". *RIPS: Revista De Investigaciones Políticas Y Sociológicas*, 11(3). Sarean eskuragarri: <https://revistas.usc.gal/index.php/rips/article/view/1022>.
- Martínez, G. (ed.) (2012). *CT o la Culturade laTransición. Crítica a35 años de cultura española*. Barcelona: Random House Mondadori.
- McGuigan, J. (2004). *Rethinking Cultural Policy*. Maidenhead (Reino Unido): Open University Press- McGraw-Hill Education.
- Mcrobbie, A. (1996). All the world's a stage, screen or magazine: When culture is the logic of ^[1]late capitalism. *Media, Culture and Society*, vol. 18, n. 3, (pp. 335-342).
- Miller, T.; Yúdice, G. (2004). *Política cultural*. Barcelona: Editorial Gedisa.
- Nivon Bolan, E. (2013). "Las políticas culturales en América Latina en el contexto de la diversidad". A. Grimson; K. Bidaseca, K (coord.). *Hegemonía cultural y políticas de la diferencia* (pp. 23-45). Buenos Aires: Consejo Latinoamericano de Ciencias Sociales.
- País Andrade, M.A (2014). "Lo cultural" desde una perspectiva de género: políticas, desarrollo y diversidad", *Revista Horizontes Sociológicos*, N°4. (pp. 125-137).
- Puleo, A. (1994). "El feminismo radical de los setenta: Kate Millett". Amorós, Celia; *Historia de la teoría feminista*. Madrid, Universidad Complutense de Madrid. (pp. 139-150).
- Rius-Ulldemolins, J. (2014): "Modelos de política cultural y modelos de equipamientos culturales: de los modelos nacionales a los modelos locales. Análisis del caso de Barcelona", *Política y Sociedad*, 51, (pp. 399-422).
- Rodríguez Morató, A. (2012). "El análisis de la política cultural en perspectiva sociológica. Claves introductorias al estudio del caso español". *RIPS: Revista de Investigaciones Políticas y Sociológicas*, 11(3), (pp. 15-38).
- Rowan, J. (2016). *Cultura libre de Estado*. Madrid: Traficantes de sueños
- Rubio Arostegui, A.; Rius-Ulldemolins, J. (2015). "Cultura y políticas públicas después del diluvio. Las ciencias sociales y la refundación de la política cultural". *Política y Sociedad* 27, Vol. 52, Num. 1 (pp. 27-52).
- Sallé Alonso, M. A (2018). *Por amor al arte: Realidades, políticas y retos para emprender cultura en Panamá*, Universitat de València: Tesis Doctoral.
- Turner, V. (1967). *The Forest of Symbols: Aspects of Ndembu Ritual*. London, Cornell University Press.
- Villaroya, A. (2009). *Compendium of Cultural Policies and Trends in Europe: Spain*. Sarean eskuragarri www.culturalpolicies.net
- Veiga Barrio, I. (2008). "Las gafas de género: una mirada a la gestión cultural", *Observatorio cultural*. Sarean eskuragarri: <https://observatoriocultural.udgvirtual.udg.mx/repositorio/bitstream/handle/123456789/117/Barrio-Gafas.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Yudice, G. (2002). *La cultura como recurso*. Barcelona: Gedisa.
- William, R. (1977). *Teoría cultural. Marxismo y literatura*. Barcelona: Península.
- Wortman, A. (1996). "Repensando las políticas culturales de la transición". *Sociedad*, N°9. (pp. 63-84). Buenos Aires.
- Zamorano, M. M (2018). "Políticas culturales y democracia cultural en Madrid y Barcelona (2015-2018)". *Revista Nava*, 3(2), (pp. 135-156).
- Zallo, R. (2011). *Análisis comparativo y tendencias de las políticas culturales de España, Cataluña y el País Vasco*. Madrid: Fundación Alternativas.
- . (2017). "Soberanía, vida buena y cultura en Euskal Herria a 20 años vista". *Hermes: pentsamendu eta historia aldizkaria= revista de pensamiento e historia*, (55), (pp. 134-137).
- Zilbeti Pérez, M. (2016). *Arte-ekoizpen feministak euskal testuinguru kulturean. Arte-instituzio garaikideetako praktika: Arteleku zentroa eta Montehermoso Kulturunea (1997-2012)*. Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Zimmer, A.; Toepler, S. (1999). The subsidized muse: Government and the arts in Western Europe and the United States. *Journal of Cultural Economics*, 23, (pp.33-49).
- Zurita Prat, M. (ed.) (2012). *Los estados de la cultura. Estudio sobre la institucionalidad cultural pública de los países del SICSUR*. Venezuela: Consejo Nacional de la Cultura y las Artes.